

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1997-98ko IKAS URTEA.

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Zer ziren Gorria eta Katzo? Nolako errapeak zituzten?
2. Zertako izan zen birrinbili-barranbala hori?
3. Zer gizon zen Jaun-Bihariora? Maltzurna? Zertako?

② UDABERRIA 4. Piarres

Horra zer zion Piarresek, bere behiak larrerat Andredena Maria goizean eraman zituclarik; eta Katzok ez zion batere ihardetsi:

"Muuu! Muuu!
Kontu Erramu!..."

Erramu iragan zen, eta Gorriak, Katzok eta bertzeek, xahako xuri eder eta handi batzuen iduriko errapeak ekartzen zituzten, arrats guziez, Oihanaldeko larre gizenetarik.

...

Egun batez, zortzi orenak irian, sekulako birrinbili barranbala eraiki zen bet-betan. Santiago, herriko muthila, bere atabalarekin, harat-hunat bazabilan karrika buru batetik, bertzera: *plan ran plan, plan ran plan!*... Piarrex, bixi bixia, samin samina, eliza-dorrean ari zen bere ezkilari joka: *dan dan dan, dan dan dan!*... Eta alderdi guzietarik heldu ziren orai gizonak, zoin bere sardiarekin edo palarekin.

"-Non da su?"

"-Hantxet, Erreka-Luzen!"

Jotzen ezkila, dardaratzen atabala entzunik, egun hartan aski bederen bazutela eginik, bordalderik ez zutela berdin Erreka-Luzen, plazatarrak gozo gozoa gelditu ziren karrikan, athe aintzinean kalaka²⁴ gorrian bulta bat goxaturik. Guarda zonbeit bazoazin bizkitartean eta jandarma zonbeit ere bai, Olhaso-kaskoari buruz.

Ieiekilan batean kasik, beren makilak eskuan, bazoazin ere jaun erretora eta jaun bikarioa. Berriki orduan ethorria ere zelakotz, erretor gaizoari, hirri-egiteko bezala, ez ziona jaun bikario maltzurak sinhetsarazi edo bederen sinhesterat utzi, baizik eta Erreka-Luzea bordari on batzuen bizitegia zitekela? Ez zion hola erran, nahi baduzue, bainan, ondo ondoraino enganatzerat utzi zuen, eta lorietan!

③ ADITZ IKASKUNTZA

- | | |
|--------------|-------------------------|
| 31. Zer zion | 32. Bazabilan |
| 33. Bazoazin | 34. Bizitegia zitekela. |

31. UKAN - Conj. à dble epl. - Indicatif - Imparfait

Hari = à lui

| <u>Epl. Indic. S. Obj. sing.</u> | <u>Epl. Indic. S. Obj. pluriel</u> |
|-----------------------------------|------------------------------------|
| Nik mion = Je le lui avais | N. nizkion = je les lui avais |
| Zuk zinion = Vs le lui aviez | Z. zinzkion = vs les lui aviez |
| Harek zion = Il le lui avait | H. zizkion = il les lui avait |
| Guk ginion =Ns le lui avions | G. ginzkion = ns les lui avions |
| Zuek zinioten = Vs le lui aviez | Z. zinzkioten = vs les lui aviez |
| Heiek zioten = Ils le lui avaient | H. zizkioten = ils les lui avaient |

32. IBILI - Indicatif -

| <u>Présent</u> | <u>Imparfait</u> |
|--------------------------|----------------------------|
| Ni nabila = je marche | nindabilan = je marchais |
| Hi habila = tu marches | hindabilan = tu marchais |
| Zu zabiliza = vs marchez | zinzabilizan = vs marchiez |
| Hura dabila | zabilan = il marchait |
| Gu gabilitza | ginabilizan |
| Zuek zabilizate | zinzabilizaten |
| Heik dabiliza etc. | zabilizan etc. |

3. JOAN - Indicatif -

| <u>Présent</u> | <u>Imparfait</u> |
|------------------------|----------------------------|
| Ni noa = Je vais | N. mindoan = j'allais |
| Hi hooa = tu vas | H. hindoan = |
| Zu zoatzi = vs allez | Z. zinoatziin = |
| Hura doa = il va | H. zoan = etc. |
| Gu goatzi = ns allons | G. ginoatziin = |
| Zuek zoazte = vs allez | Z. zinoaztea = |
| Heik doatzi = ils vont | H. zoatziin = ils allaient |